

HABEKO Zuzendaritza Batzordea BILERA-AKTA

Eguna: 2015-01-30 **Hasiera-ordua:** 09:30 **Bukaera-ordua:** 12:00

Bertaratuak

Cristina Uriarte Toledo and. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburua
Patxi Baztarrika Galparsoro jn., Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea
Jokin Azkue Arrastoa jn., Euskara sustatzeko zuzendaria
Gotzon Lobera Revilla jn., Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria
Joseba Erkizia Itoitz jn., HABEren zuzendari nagusia
Eneko Oregi Goñi jn., HAAE-IVAPEko Euskara zuzendariordea
Ana Maria de Castro Rubalcaba and., Bizkaiko Foru Aldundiko Euskararen zuzendari nagusia
Zigor Etxeburua Urbizu jn, Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskarako zuzendari nagusia
Esther Isasa Gaskue and., HABEko Didaktika zerbitzuko ordezkaria
Pedro Lonbide Lazarralde jn., Araba eta Bizkaiko udal euskaltegietako irakasleen ordezkaria
Arantxa Ezeiza Trojaola and., Gipuzkoako udal euskaltegietako irakasleen ordezkaria

Bertaratu ezina adierazi dutenak

Iciar Lamarain Cenitagoya and., Arabako Euskara, Kultura eta Kirol Departamentuko foru diputatua.
Andres Iñigo Ariztegi jn., Euskaltzaindiaren ordezkaria

Aztergaiak:

1. 2014-04-29ko bileraren akta onartzea
2. 2014ko aurrekontuaren likidazioa
3. 2015eko aurrekontua
4. 2014ko jardueren memoria
5. 2015eko egitasmoak
6. Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculum berriaren Agindua
7. Euskaltegietako matrikulazioaren bilakaera
8. Galde-erreguak

1.- 2014/04/29KO BILERAREN AKTA ONARTZEA

Aipatutako zuzenketak eginda, onartuta gelditu da.

2.- 2014KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Gai hau hurrengo bilerarako uzten da. Izan ere, Batzordearen idazkariak azaltzen du, aurtien batzorde honek urte hasieran egiten duen ohiko bileraren eguna aurreratu egin da Curriculum berriaren proposamena aurkezteko, eta Jaurlaritzak ez ditu oraindik 2014ko aurrekontuak itxi. Beraz, ez dago informazio nahikoa dagoeneko gaia tratatzeko.

3.- 2015EKO AURREKONTUA

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

HABEren zuzendariak, gai zerrendaren puntu honi erantsitako txostenari jarraituz, 2015erako onartu den aurrekontua azaltzen du, iazkoarekin alderatuta I. II. IV. eta VI. kapituluetan jaso dituen diru kopuru-aldaketen arrazoiak adieraziz.

Agertzen du HABEren aurrekontuen trontzo garrantzitsuena euskaltegiei zuzendutako dirulaguntzena dela, eta Aurrekontuetan jasotako kopuruak euskaltegien jarduerarekin lotuta daudela zuzenenean, hau da, euskaltegiek duten jarduera errearen arabera dagokien dirulaguntzak estaltzeko adinakoak direla. Udal euskaltegien kasuan, jaitsiera bat dago (11630.000tik 11.340.000ra), EUDELein 2009an sinatutako hitzaremanaren arabera aurten amaitu delako salbuespen egoeran zeuden irakasleen egoerak normalizatzeko epea (5 ikasturte). Euskaltegi pribatuen kasuan, aurrekontua mantendu egiten da, jarduera mantentzeko aurreikuspena dagoelako.

Aldaketa horretaz gain, honako berezitasun hauek ere aipatzen ditu:

- Ikasleei zuzendutako dirulaguntzak: 800.000 eurotik 1.000.000ra pasatu dira (iaz, 700.000 eurotik 800.000 eurotara pasatu zen partida hori). Legealdi hasieran deialdi hau errekuperatu ondoren (2012an bertan behera geratu zen, aurreko legealdian), urtez urte gehitzen joan den partida bakarra da hau, eta helburua du ikasketa prozesu eraginkorrak egiten dituzten ikasleei ikasprozesua doan edo doakotasunetik ahalik eta gertuen egiteko aukera eskaintzea.
- VI. Kapitulukoa (30.000 euro gehiago), proiektuan dagoen Curriculum berria aplikatzeak sistema informatikoetan eskatuko dituen egokitzapenak gauzatzeko.
- FEVARI zuzendutako dirulaguntzaren gehikuntza (8.500 €), Argentina euskaraz programak 25 urte betetzen dituela ospatzeko antolatuko diren ekintzetarako, batik bat 25 urteotan euskararen irakaskuntzan Argentinan izan duen bilakaera jasoko duen liburu bat egiteko.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkariak galdetzen du udal euskaltegiei 2015-16 ikasturtean emango zaien diru-kopuruaren jantsiera zergatik gertatu den, soldatak jaitsi direlako edo euskaltegi horien jarduera jaitsi delako, eta HABEren zuzendariak erantzuten dio jaitsiera hori lehen aipatu den salbuespen-egoera desagertu delako bakarrik gertatu dela; hain zuzen ere, 2009an EUDELein adostu zen zenbait udal euskaltegitan salbuespen-egoera aplikatzea, euskarazko klaserik eman gabe zeuden irakasle batzuk dirulaguntzen kopurua erabakitzeke garaian kontutan hartuak izan zitezten, baina udalek langile horien egoerari buruzko neurriak hartzeko denbora izan zezaten (euskalduntze jarduerarako beharrezkoak ez ziren irakasle lanpostuak hizkuntza teknikari bihurtzeko, lekuz aldatzeko, amortizatzeko eta abar). Eta horretarako bost urteko epea adostu zela azaltzen du. Horregatik, epe hori 2014an igaro ondoren, aurrekontuetako partida honek euskaltegien jarduera erreari bakarrik egin behar diola aurre argitzen du, EUDELein adostuta dagoen hitzarmenaren arabera.

Baita ere, Gipuzkoako Foru Aldundiaren ordezkariak planteatzen du HABEren jarraibide hori, udal euskaltegien jarduera erreari aurre egitekoa, iraunkorra den ala ez, eta, bestalde, bere ekarpena gehitzeko asmorik baduen, zenbait udalek HABEK berak baino ekarpen handiagoa egiten omen baitute. Alde batetik, Presidenteordeak erantzuten dio agian eztabaidatzeko gaia litzatekeela udal euskaltegiak finantzatzeko irizpidea zein izan behar den, baina momentu honetan borondatea edo asmoa jardueraren ildo horretatik jarraitzeko dela. Bestalde, HABEren zuzendariak ere azaltzen du erakundearen ekarpenak ez direla txikitu; alderantziz, jardueraren arabera izanik, jarduera gehitzen dutenek dirulaguntza handiagoa jasoko dutela, betiere EUDELein sinatutako hitzarmenean adostu zena errespetatuz.

Arantxa Ezeizak, udal euskaltegien ordezkari denak, bere aldetik, salbuespen egoeraren ondorioak azaltzen ditu eta HABEren zuzendariak emandako azalpenekin bat datorrela adierazten du hitzarmenean adostutakoa betetzen baita; baina, eranstean du, udal euskaltegiek hainbat gai dituztela elkarrekin joratu beharrekoak, alde handiak baitaude beraien artean zenbait arlotan, (irakasle poltsak, publizitatea, soldaten aldeak, etabar) finantzazioan eragina dutenak, baina alde horiek ez direla gertatzen HABEren ekarpenak txikitu direlako, baizik eta udalek beraiek erabakitakoaren ondorioz gertatu direlako. Jartzen du, esate baterako, soldaten kasua, udal batzuk hitzartutako soldatak igotzea erabaki baituzten eta orain udal horiek beste batzuk baino ekarpen handiagoak egin behar baitituzte.

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Hala ere, Presidentak adierazten du, eguneko gai zerrendan aurreikusita egoteaz gain, udal euskaltegien finantzazioaz aritzeko EUDEL dela udalen berriazko ordezkaria, eta orain arte egin den bezala, gaia EUDELekin tratatzen jarraitu beharko dela.

4.- 2014KO JARDUEREN MEMORIA

HABEren zuzendariak aditzera eman ditu erakundeak 2014. urtean burutu dituen proiektuak, batzordekideei emandako dokumentazioan agertzen den informazioari jarraiki, eta akta honi eransten zaiona, honako arlo hauetan:

- Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculumaren diseinua
- Materialgintza-proiektua eta homologazioa: A2 mailarako langaiak sortu, argitaratu eta merkaturatzeko proiektua abian jartzea, A1 eta A2 mailako bideo eta audioen sormena burutzea, etabar.
- Argitalpenak: HABE aldizkaria on-line formatuan eta irakasleen formakuntzarako argitalpenak.
- Liburutegia: funts berrien erosketak, sarean funtzionatzeko hobekuntzak eta Kataluniako Generalitatearekin sinatutako hizarmena.
- Euskaltegien jardueraren eraketa eta jarraipena
- Euskalduntze-Alfabetatzeko sektorearen finantzazioa
- Ikas-Irakasprozesuaren jarraipena eta Ebaluazioa
- Teknologia berriez baliatuz, etengabeko hobekuntza sustatu euskararen irakaskuntzan
- Euskaltzaindia: erakunde bien artean sinatutako hitzarmenari bi lanketa esparru berri gehitzea.

Guztien artean, Helduen Euskalduntzerako Curriculum berriaren proposamena lantzea izan dela garrantzitsuena azpimarratu du, eta proiektua nola landu den laburbilduz azaldu ondoren (bileraren 6. puntuan ikutuko baita gaia), lana emankorra izan da eta emaitza ere egokia.

5.- 2015EKO EGITASMOA

2015. urteari begira, batzordekideei emandako txostenean (eta akta honi eransten zaiona) agertzen diren proiektuen berri ematen du HABEren zuzendariak, honako hauek azpimarratuz:

- Curriculum berria onartu ondoren, bere aplikazioa martxan jartzea.
- A2 mailako baliabideei buruzko proiektua amaitu eta B1 mailakoei dagokiena abian jartzea.
- Irakasleen prestakuntza, bereziki Curriculum berriak ezartzen dituen egokitzapenetara bideratua.
- Egiaztegitzaren aldeko zenbait kontu lantzea 2016ko deialdiei begira: deialdi irekiak, euskaltegien zereginak egiaztegitzaren prozesuan, etabar (2015ean egun indarrean dagoen Curriculumari jairriki burutuko dira deialdi biak, Curriculum berria martxan jartzea gehikuntza nahikoa izango baita).

IVAPen ordezkaria den Eneko Oregik bere kezka adierazten du Curriculum berriaren aurrean. Izan ere, azkeneko 25 urteotan orain arteko sistemarekin lanean jardun ondoren, Curriculum berri honek eta ondoren onartuko den azpimailaketa sistemak erakarriko dituzten egokitzapenak egiteko denbora gutxi ikusten du, betiere asmoa Curriculum berria datorren ikasturterako indarrean jartzea bada.

Joseba Erkiziak zehazten du ikastaroen eskaintzaren aldetik benetan berria azpimailaketa sistema izango dela; hala eta guztiz, adierazten dio erakundea, dagoeneko, lantzen ari dela HEOCaren azpimailen eta aurreko "urratsen" arteko korrelazioa, eta informazio hori guztia IVAPen eskuetan jarriko duela HABEK, IVAPen beharrak atentitzearen.

Eneko Oregik eskertu egiten dio eskainitako laguntza.

6.- HELDUEN EUSKALDUNTZERAKO OINARRIZKO CURRICULUM BERRIAREN AGINDU PROPOSAMENA

HABEren zuzendariak azaltzen du, alde aurretik, nola landu den proiektua behin erakundeko teknikariek oinarrizko proposamena egin ondoren: horretarako berriazko lantaleak antolatu dira HABEko lankideen eta euskaltegiatako irakasleen artean, curriculumari buruzko foroa ere zabaldu da, baina harremanak ez dira

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Euskadiko Autonomia Ekidegoko euskalduntze sarera mugatu, eta bestelako hainbat eragileri ere azaldu zaie proiektua: Hizkuntza Eskola Ofizialei, Nafarroako Euskarabideari eta Iparraldeko Erakunde Publikoari, besteak beste. Lanketa prozesu honetan berariazko txostenak eta iradokizunak jaso ditu HABEk, Nafarroako Euskarabideatik eta Iparraldeko Erakunde Publikotik.

Ondoren, Curriculum proposamenaren ezaugarri nagusiak azpimarratzen ditu:

- Curriculumaren egokitzapenaren arrazoia eta oinarria Europako Erreferentzia Marko Bateratua izan da, betiere euskararen egoerari eta euskararen ikasleenari begira.
- Gaitasun komunikatiboa da Curriculum proposamen honen ardatza: ikaslearen aldetik, hiztuna eta euskara erabiltzen duena du helburu; irakaslearengandik, berriz, curriculum hau profesionalari bide zehatzagoak eta lagungarriagoak erakustearen bila doa, irakaskuntza prozesuan aurrera egiteko.
- Europako Markoaren sei mailak lehenbiziko aldiz euskararen ikuspuntutik defintzeaz gainera, azpimailen definizioa ere aurreikusten du HEOCak, HABEko zuzendariaren ebazpenaren bitartez egingo dena.

Zuzendariak zehazten du, bestalde, Agindu mailako arau-proposamena aukeratu dela HABEko lan-taldeak egin zuen Dekretu mailako proposamenaren aurrean, batez ere, antolamendu akademikoaren aldetik Dekretuak jaso beharko litzuzkeen hainbat gaik gogoeta sakonak eskatzen dituztelako; horregatik, kontuan hartuta sailburuak ahalmen nahikoa duela Curriculum berria ezartzeko, egokitzat jo dela curriculum berriaren aplikazioa ez atzeratzea eta lehenbailehen indarrean jartzea, onuragarria izango baita prozesuaren partaide guztientzat, eta beharrezkoa zaigun hausnarketa sakon horri aurten ekitea.

Edukiaren aldetik, berriz, zati nagusi hauek bereizten ditu:

- alde batetik, zati arauemailea, bertan, laburbilduz, atal hauek zehaztuz: zeintzuk diren mailak (hain zuzen ere, Europako Erreferentzia Marko Bateratuan ezartzen diren berberak), maila bakoitza gainditzeko aurreikusten den lanketaren ordu kopurua, eta ondorengo azpimailen ezarpena.
- bestetik, xedapen gehigarriak eta iragankorrak, besteak beste, 2015eko bi azterketa deialdiak egun indarrean dagoen curriculumaren arabera burutuak izan daitezen, eta 2016koetan, berriz, curriculum berrian jasoko diren maila guztiak egiaztatu ahal izan daitezen.
- azkenik, Curriculumaren helburuak, edukiak, metodologia eta ebaluazio-irizpideak, mailen definizio eta deskreipzioak zehaztuz eta maila bakoitzari buruzko eduki zehatzak jasoz.

Alde honetatik, Eneko Oregik mahaiganeratzten du arau berri honek ekar litzakeen arazoak funtzionarioek egun dituzten ordu kreditoei begira, Curriculum berriak maila bakoitza gainditzeko ordu lektibo gutxiago aurreikusten baititu; eta, baita ere, oso denbora gutxi izatearena berak ordezkatzten duen erakundeak egin beharreko berrantolaketak egiteko.

Joseba Erkiziaren ustetan, Curriculum berriaren onarpenak ez luke IVAP behartuko bere araudia aldatzera, xedapen berriak ordu lektiboez gain, bakarko lanetarako ordu kopuruak ere aurreikusten baititu; eta bestetik, aurreikuspen berriak ebaluatu egin beharko direlako urte batzuk barru egokiak izan diren ala ez erabakitzeke.

Zigor Etxaburuak, bere aldetik, azpimailek izango duten eraginari buruz galdetzen dio; alegia, ikas-irakas prozesuan bakarrik nabaritutako diren, edo bestelako eraginik ere izango duten, edo beste modu batera esanda, argitzen du, nahiz eta ikas-irakas prozesua antolatzeko baliagarriak izan, ez ote duten herritarrengan nahasmenik sortaraziko.

Curriculumaren dibulgazio egokia eginez arrisku hori saihestuko dela erantzun dio Joseba Erkiziak.

Bestalde, Esther Isasak, HABEko langilea den aldetik, batzordekideen jakinean jarri nahi duela adierazten du, lanketa sare desberdinetan eta erakunde desberdinetako jendearekin egin dela eta eskertu behar direla irakasle, aditu eta ohargile askok egin dituzten oharrak

Sailburuak eta sailburuordeak ere eskerrak eman nahi dizkie HABEko lankideei eta euskaltegiatako partaideei, halako lankietza estua izateak indar handia ematen diolako curriculumari. Hortaz, zoriondu egin nahi dituzte HABE eta euskaltegiak

Honenbestez, onartuta gelditzen da HEOC berria.

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

7.- EUSKALTEGIETAKO MATRIKULAZIOAREN BILAKAERA

Batzordearen idazkariak azaltzen du Gipuzkoako Aldundiaren ordezkariak egindako eskariaren aurrean -hain zuzen ere, izenburuan aipatu gaia tratatzeko berariazko bilera eskatuz- egokitzat jo dela proposamena gaurko bileraren gai zerrendan sartzea.

Aipatu ordezkariak azaltzen ditu bere eskaeraren arrazoiak esanez mahai honi dagokiola udal euskaltegiekin gertatzen ari dena aztertzea, Araban eta Bizkaian oraindik ere jaisten ari baita matrikulatutako ikasleen kopurua. Aldi berean, aipatzen du euskararen erabilerari buruzko datuak ez direla erakusten.

Planteamentu horren aurrean HABEren zuzendariak adierazten du matrikula kopuruaren jatsiera eragin duten arrazoiak zehaztea oso prozesu konplexua dela, datu asko izan arren oso zaila baita toki bakoitzean arrazoi bakoitzak norainoko eragina izan duen finkatzea. Esan duenez, datuen arabera, 2013-14 ikasturtean matrikulen jaitziera gelditu egin zen, eta aurtengo matrikulazio datuen arabera, kopuru hori dagoeneko gora egiten hasi da; goranzko joera horretan zerikusia du ikaslearen edo euskaltegiaren egoera soziolinguistikoaren aldagaiak, baina baita ere ikasleei zuzendutako beka sistemak eta sentiberatze-lanak. Guztiarekin, azpimarratzen du zein den matrikulazioaren bilakaeratik eratorritako datu garrantzitsuena: euskalduntze prozesuak oraindik ez duela tope egin.

Beken sistemari dagokionez, Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak ikasleen matrikula jaitzierarekin lotutako kezka adierazten du, eta horregatik planteatzen du dirulaguntza sistema indartzera jo beharko litzatekeela, herritarrak matrikularen %75, gutxienez, diruz lagunduta izan dezan.

Kezka horren aurrean, Jokin Azkuek erantzuten dio ikasleen matrikularen bilakaerari buruz eta, orokorrean, euskarari buruz hitz egiterakoan, zintzotazunez hitz egin behar dela, beti egia esanez; Gipuzkoako Aldundiak gai honetaz egin duen azkeneko agerraldian, alegia, ez baitu egoera benetan den bezalako azaldu, iradoki baitu ikasleriak Gipuzkoan gora egin duela Aldundia egiten ari den sustapen lanari esker. Berak dio, azken baten, dirulaguntza sistema ez dela aurten asmatutakoa (eta sistema horretan ikasleari ez zaiola dirulaguntza zuzenekin bakarrik laguntzen, euskaltegiei ematen zaizkien dirulaguntzak ere dirulaguntza nabarmenak direla ikasleentzat). Alderantziz, aspalditik datorren bidea dela, eta Gipuzkoako Aldundia betidanik egon dela batzorde honetan ordezkatuta, baita ere azkeneko hiru urtetan; beraz, bere legealdia bukatzean dagoela planteamentu hauekin hastea ez dela bidezkoa, oraindik gutxiago, HABE azkeneko hiru urtetan egin duena ikasleen dirulaguntzak berreskuratzea izan denean, eta ez hori bakarrik, baizik eta horretarako onartu den diru kopurua gehitzen joan denean azkeneko hiru urtetan (2012an kendu egin ziren dirulaguntzak, 2013an 700.000 € onartu, 2014an 800.000€, eta 2015erako 1.000.000 €). Hori horrela izanda, matrikulazioaren jaitzierarengatik kezka aurkeztekotan hobe zela aurreko urteetan aurkeztea, jatsiera hori nabarmena zenean, orain, azkeneko hilabetetan adieraztea baino.

Aldundiaren ordezkari Zigor Etxeburuak Jokin Azkueri ihardesten dio, ez duela beren agerraldien azalpenak eman beharrik batzorde honetan.

Hala ere, Bizkaiko Foru Aldundiaren ordezkaria den Ana de Castrok berriro ere nabarmentzen du agerraldia egitekotan gaiari buruz dauden datu guztiak emanez egin behar dela, ez sektoreko zati batek egiten duena bakarrik esanda, "azken baten, denok txalupa berean joan beharko genuke indarrak gehitzeko". Hitz hauen aurrean, Zigor Etxeburuak bere zalantza jarrera adierazten du.

Jarraitzen du Joseba Erkiziak fokoa errealtatean jarri behar dela esanez, alde batetik ezin delako jaitzieraren arrazoiak hau edo hura dela esan ikerketa bat egin gabe (arrazoiak ez baitira berdinak toki guztietan eta ikasle guztientzat); eta bestetik, Gipuzkoako Aldundiak eman duen agerraldira ekarritako datuetatik zenbait euskaltegi interpretatu duelako HABE ematen dituen dirulaguntzak aurten jaitzi egiten zirela; hau horrela izanik, eta hainbat udal eta euskaltegitatik jaso ditugun telefono deien aurrean - aurten dirulaguntzak jaisten ziren ala ez galdetzeko-prentsa oharra atarea behar izan dugu informazioa emateko eta hori ez dela horrela argitzeko. Erantsi du sektore honetan inor ez dagoela soberan eta, iritzi diferentek eduki arren, errealtatearen irudia aldatzea ez dela zilegi..

Esandakoari jarraituz, Presidenteordea den Patxi Baztarrikak adierazten du eztabaida hauek ez direla batere onuragarriak euskararentzat; alderantziz, arlo honetan partaide diren guztiak indarrak batu beharko litzuketela, beti aldamenekoei errealtateak diren gauzak ukatu gabe. Bere ustetan, euskararen txalupa guztion txalupa da.

Esther Isasak, HABEko Didaktika zerbitzuaren ordezkaria denak, galdetzen du ea ezagutzen diren ikasle izan direnek matrikula berriz ez egitearen arrazoiak zeintzuk diren, ea horretaz inoiz galdetu zaien.

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Ana de Castrok azaltzen dio Bizkaian, Bilbo inguruko euskaltegietako egoerari begira, saiakera bat egin zela ildo horretatik, eta atera zuten ondorioa izan zela faktore guztien artean nabarmenena krisialdiaren eragina zela.

Joseba Erkiziak ere aurrekoaren harira, esaten du krisialdiaren ondorioz zerbizu arloko aktibitatea orokorrean urritu egin dela, sektore guztietan; horregatik, gauden bezala egonda, ez genukeela kontsideratu beharko gaizki gaudenik. Azaltzen du, hala ere, badaudela hainbat gauza egokitzeke, besteak beste, ikastaroen trinkotasunak eta modalitateak aniztu.

Laburbilduz, batzordearen presidentak ezeztatzen du eskatzen ari den balorazioa besterik gabe egiteko aukera, aldagaiak ugariak baitira, eta ondorioz, balorazioa ezin delako egin balore absolutotan; esate baterako biztanleria jaitsi egin dela eta ikasletoa ere bai, eta horrelako beste hainbat korrelazio topa daitezkeela. Horregatik, balorazioaren bat egitekotan ikerketa egokia egin beharko litzatekeela aurretik, gaineratzen du, benetako datuak eta arrazoiak ezagutzeko eta hartzen diren neurriak egokiak izateko.

Egoki ikusten duela horrelako ikerketa bat egitea erantzuten dio Gipuzkoako Aldundiaren ordezkariak, baina presidentak egozten dio jarraitu duen bidea ez dela zuzena eskaera hori egiteko, batzorde hau hemen egon delako orain arte ere, eta batzorde honek eskumena izanik eskari horri erantzuna emateko, batzordean mahaiganeratu behar zuela beste inora joan aurretik (Aldundiak egin zuen agerraldiari aipua eginez).

Arantxa Ezeizaren hitzetan, “ondo dago gaurko jardunaldi hau, denon artean hitz egiten ari garelako”, hain zuzen ere, aspaldiko kezka baita euskaltegietako matrikulazioaren jaitsiera. Baina, bere ustez, esan beharra dago, baita ere, gaur egun orain dela 10 urte baino askoz ere hobeto daudela euskaltegiak beren jardueraren aldetik, pauso asko eman baitira egoera horri aurre egiteko, beste batzuen artean ikastaroen trinkotasuna malgutzea, nahiz eta hori egin duten euskaltegiek dirulaguntzarik jaso ez duten ikastaro horiengatik. Eta orain dirulaguntzen arazoa ere, curriculum berriarekin, konpondu egingo dela adierazten du. Hori guztia dela eta, modu positiboan jardun beharko dutela euskararen txalupan ari diren partaideak gaineratzen du, prozesu honetan udalen inplikazioa oinarritzkoa dela azpimarratuz.

Azkenik, presidenteordeak ikerketaren zailtasunak eta klabeak azpimarratu ondoren, HABEren zuzendariak adierazten du kezka konpartitua izanik, saiakera bat egingo duela erakundeak alde horretatik, jakin arren mugak topatuko dituztela bidean gaiaren konplexutasunagatik.